

ETXEKO ARAZOAK

Kaixo! Ni Ane naiz. Gure familian zazpi pertsona gara: ama, aita, bi ahizpa zaharrago, bi anai txiki eta ni, noski.

Nire bi arreba handiek energia pila bat xahutzen dute eta baita ur pila bat duxatzean.

Anai txiek ez dute birziklatzen eta ama egun osoan kotxearekin: etxetik parkera, parketik etxera, etxetik solfeora, solfeotik dantzara ...

Aita lanetik etortzean ... telebistara.

Nire amatxi gurekin bizi da eta hori ere egun osoa telebistan Salvame, irratian Gaztea eta berogailua iaitsun sutan. Baina bederen bizikletan ibiltzen da.

Denen artean hondakin pila bat sortzen dugu.

Nik ez dut bikirik eta orduan gela bat daukat niretzako. Lehenago, ahizpen gelan builarekin ezin nuen lorik egin, 00:00-ak arte mugikorrarekin.

Etxe honetan arazoak moldatzen dituen ni naiz eta aste honetan birziklapen, energia, hondakin eta uraren problema moldatzea tokatzen zait.

Bakoitzak ardura bat bagenu, errazago izango zen dena baina hori ezinezkoa da.

Aunitzetan alferkeria sartzen zaie birziklatzeko orduan. Ideia bat daukat!

Etxeko solairu bakoitzean lau kartoizko ontzi jarriko ditut: horia, berdea, urdina eta marroia. Jakingo duzue zertarako den bakoitza, ezta?

Birziklapenaren kontua konponduta. Orain: Energiarena!

Ahizpek mugikorra uztea zaila baina ez da ezinezkoa bertze afizio gehiago dituztela gogoratzea ezta ere.

Saskibaloia gustatzen zaie eta hori gogoratuko diet:

Tok,tok,tok!

-Zer nahi duzu?

-Zuen lagunak saskibaloian jolasteko gelditu dira!

Lasai, gezurra da, baina kanpoan dauden bitartean egunean 2 ordu funtzionatzeko programatuko diet mugikorra. Orduan energiarena konponduta.

Orain, hondakinena konpontzera! 7 gara eta bakoitzak egunero aluminio-paper bat erabiltzen dugu. Orduan, $7 \times 365 = \dots 2.500$ aluminio-paper erabiltzen ditugu urtean!

Dendara noa bock&roll-ak eroatera. Eroaketa honekin munduan 2.555 aluminio-paper erabiltzea eragozten dugu.

Orain urarena. Nola?

Neskei ilea moztea hoberena. Baina ezinezkoa da. Bakoitzak 10 minutu dutxan eta mutilak 5 edo 6.

Jakina! Beharrezko denbora baino gehiago egonda, 5 minutu gehiago adibidez, 50 zentimo kobratuko diet eta orduan ez dute ur aunitz gastatuko eta gero irabazitako diruarekin ur edo energiaren gastuak pagatuko ditugu! Lasai, soberan ailegatuko zaigu.

Eta arazo hau konponduta.

Din,Don ... Din,Don ...

Ahizpak lagunik gabe, kargagailurik gabe eta dutxan denbora gutxiagorekin. Hobe armairuan gordetzea, haserre daude eta.